

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2009/32/EE ZUZENTARAUUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko apirilaren 23koa, Estatu kideek elikagaiak eta elikagaien osagaiak fabrikatzeko erabiltzen diren erauzketa-disolbatzaileen inguruan dituzten legeak bateratzeari buruzkoa (bertsio bategina).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «DIRECTIVA 2009/32/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros sobre los disolventes de extracción utilizados en la fabricación de productos alimenticios y de sus ingredientes (versión refundida)» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 141/3 de 6/6/2009)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ZUZENTARAUAK

**2009/32/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,
2009ko apirilaren 23koa,
Estatu kideek elikagaiak eta elikagaien osagaiak fabrikatzeko erabiltzen diren erauzketa-disolbatzaileen inguruan
dituzten legeak bateratzeari buruzkoa
(bertsio bategina)**

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia, eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Kontseiluaren 88/344/EEE Zuzentaraua, 1988ko ekainaren 13koa, estatu kideek elikagaiak eta elikagaien osagaiak fabrikatzeko erabiltzen diren erauzketa-disolbatzaileen inguruan dituzten legeak bateratzeko [3] hainbatetan aldatu da, funtsean aldatu ere [4]. Zuzentaru hori berriro aldatzeko denez, komeni da, argitasunaren mesedetan, haren xedapenak bateratzea.

(2) Estatuaren erauzketa-disolbatzaileei buruzko legeen artean desberdintasunak daude, eta desberdintasun horiek elikagaien zirkulazio askea oztopatzen dute. Halaber, desberdintasun horiek lehia-baldintza desberdinak izatea eragin dezakete, barne-merkatuaren funtzionamendua kaltetzen dutenak.

(3) Horrenbestez, beharrezkoa da legeak bateratzea, elikagaiak askatasunez zirkula daitezzen.

(4) Elikagaietan erabiltzen diren erauzketa-disolbatzaileei buruzko legeek bereziki kontuan izan behar dituzte giza osasunari buruzko arauak, baina baita, osasuna babesteko beharrezko mugen baitan, beharrezko ekonomikoak eta teknikoak ere.

(5) Legeak bateratzeko, elikagaiak eta beste elikagai-osagai batzuk prestatzeko erauzketa-disolbatzaileen zerrenda bakarra egin beharko litzateke. Halaber, komenigarria litzateke purutasun-irizpide orokorrak zehaztea.

(6) Erauzketa-disolbatzaileak fabrikazioko baldintza egokietan erabiltzearen ondorioa izan behar da elikagaietan edo elikagaien osagaietan disolbatzaileen hondakin guztiak edo zati handi bat kentzea.

(7) Baldintza horietan, elikagaiaren edo osagaiaren azken produktuan hondakinak edo hondakinen eratorriak egotea nahi gabekoa izan daiteke, baina teknikoki saihestezina.

(8) I. eranskineko I. zatian adierazitako eta kontsumitzailearen segurtasunaren ikuspuntutik onartutako substantzietan ez da beharrezkoa berariazko muga bat jartzea, oro har erabilgarria izan arren, baldin eta fabrikazioko jardunbide egokien baldintzetan erabiltzen badira.

(9) Osasun publikoa babesteko ikuspuntutik, komeni da zehaztea I. eranskineko II. eta III. zatietan adierazitako beste erauzketa-disolbatzaile batzuen erabilera, eta elikagaietan eta elikagaien osagaietan onartutako hondakinen gehieneko balioak.

2009/32/EE Zuzentaru (EBren Egunkari Ofiziala, L 141/3, 2009/06/06koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(10) Komeni da berariazko purutasun-irizpideak zehaztea erauzketa-disolbatzaileentzat. Halaber, komeni da elikagaien erauzketa-disolbatzaileak aztertzeko eta erauzketa-disolbatzaileen laginak hartzeko metodoak ere zehaztea.

(11) Zuzentarau honetan aurreikusitako erauzketa-disolbatzailearen bat erabiltzea osasunarentzat arrisksua izan badaiteke, informazio berriak kontuan hartuta, estatu kideek disolbatzailearen erabilera eten edo mugatu beharko lukete, edo aurreikusitako mugak murriztu, Erkidegoak erabaki bat hartzen duen arte.

(12) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraituz; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraituz [5].

(13) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea, xede hauetarako: lehengaiak prozesatzean, eta elikagaien eta elikagai-osagaien fabrikazioan erabil daitezkeen erauzketa-disolbatzaileen zerrenda aldatzeko, erauzketa-disolbatzaileen erabilera-baldintzak eta hondakinen gehieneko edukiak zehazteko, erauzketa-disolbatzaileentzat purutasun-irizpide orokorrak eta espezifikoko hartzeko, eta purutasun-irizpide orokorrak eta espezifikokoak betetzen direla egiaztatzeko analisi-metodoak ezartzeko, bai eta elikagaien erauzketa-disolbatzaileak analizatzeko eta laginak ateratzeko metodoak ezartzeko ere. Neurri horiek orokorrak eta zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osa daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

(14) Eraginkortasunaren mesedetan, aurreratu egin behar dira kontrol-dun arautze-prozesuko epeak, xede hauetarako: lehengaien prozesatzean, eta elikagaien eta osagaien fabrikazioan erabil daitezkeen erauzketa-disolbatzaileen zerrenda aldatzeko, erabilera-baldintzak eta hondakinen gehieneko baldintzak zehazteko, eta erauzketa-disolbatzaileentzat purutasun-irizpide orokorrak eta espezifikokoak hartzeko.

(15) Premia biziko arrazoiak direla eta, batez ere osasuna arriskuan jartzen bada eta ezin badira errespetatu kontrol-dun arautze-prozeduraren esparruan normalean aplikatu daitezkeen epeak, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan 6. paragrafoan agindutako urgentziako prozedura aplikatu ahal izango du Batzordeak, hauek egiteko: lehengaien prozesatzean, eta elikagaien eta osagaien fabrikazioan erabil daitezkeen erauzketa-disolbatzaileen zerrenda aldatzeko; erabilera-baldintzak eta hondakinen gehieneko edukiak zehazteko; erauzketa-disolbatzaileentzat purutasun-irizpide orokorrak eta espezifikokoak hartzeko; eta zuzentarau hau aldatzeko, baldin eta ezartzen bada I. eranskineko zerrendan ageri den edozein substantzia elikagaietan erabiltzeak edo substantzia horietan dauden 3. artikuluan jasotako osagai baten edo zenbait osagaien ehunekoak giza osasuna arriskuan jartzen duela, zuzentarau honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen arren.

(16) Zuzentarau honetan sartutako elementu berriak komitearen prozedurei buruzkoak baino ez dira. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa estatu kideek elementu horiek jasotzea.

(18) Zuzentarau honek ez die eragingo II. eranskineko B zatian adierazitako zuzentarauak estatuko zuzenbidean jasotzeko epeei buruz estatu kideei ezartzen zaizkien betebeharrak.

HONAKO ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

1. Zuzentarau hau elikagaiak edo elikagaien osagaiak fabrikatzeko erabiltzen diren erauzketa-disolbatzaileei aplikatuko zaie.

Zuzentarau hau ez zaie aplikatuko elikagai-gehigarriak, bitaminak eta beste gehigarri nutritibo batzuk ekoizteko erabiltzen diren erauzketa-disolbatzaileei; elikagai-gehigarri, bitamina eta gehigarri nutritibo horiek I. eranskineko zerrendetako batean ageri direnean izan ezik.

Hala ere, estatu kideek arretaz zainduko dute elikagai-gehigarrien, bitaminen eta beste gehigarri nutritibo batzuen erabilerak elikagaietan hauek ez sortzea: giza osasunarentzat arrisksuak diren edukiak dituzten erauzketa-disolbatzaileen hondakinak.

Zuzentarau hau aplikatu egingo da, Erkidegoko arau espezifikogoen arabera hartutako xedapenen kalterik gabe.

2. Zuzentarau honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira oinarri:

2009/32/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 141/3, 2009/06/06koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) “disolbatzailea”: elikagai bat edo elikagai baten edozein osagai disolba dezakeen edozein substantzia, baita elikagai horretan dagoen edozein kontaminatzaile ere.

b) “erauzketa-disolbatzailea”: lehengaiak, elikagaiak edo elikagaien osagaiak tratatzeko erauzketa-prozesuan erabiltzen den disolbatzailea, ken daitekeena eta elikagaian edo osagaian hondakinak edo hondakinen eratorriak izatea eragin dezakeena, nahi gabe baina teknikoki saihestu ezin den moduan.

2. artikulua

1. Estatu kideek baimenduko dute I. eranskineko substantziak eta materiak erabiltzea, elikagaien edo elikagaien osagaien fabrikazioko erauzketa-disolbatzaile gisa, eranskin horretan aldi baterako zehazten diren erabilera-baldintzetan eta hondakinen gehieneko mugak errespetatuz.

Estatu kideek ezingo dute debekatu, mugatu edo oztopatu elikagaiak edo elikagaien osagaiak merkaturatzea, zuzentarau honen xedapenak betetzen dituzten erauzketa-disolbatzaileei edo erauzketa-disolbatzaileen hondakinei buruzko arazoengatik.

2. Estatu kideek debekatu egingo dute I. eranskinean zerrendatutako erauzketa-disolbatzaileak ez diren beste substantzia eta materia batzuk erauzketa-disolbatzaile gisa erabiltzea, eta ezingo dituzte handitu erabilera-baldintza horiek eta onar daitezkeen hondakinen gehieneko mugak, adierazitakoa baino gehiago.

3. Baimenduta dago ura (behar izanez gero, azidotasuna eta alkalinitasuna egokitzeko substantziak gehituta) eta propietate disolbatzaileak dituzten beste substantzia batzuk erabiltzea elikagaien edo elikagaien osagaien fabrikazioan, erauzketa-disolbatzaile gisa.

3. artikulua

Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, I. eranskinean erauzketa-disolbatzaile gisa ageri diren substantziak eta materiak purutasun-irizpide orokor eta espezifikoko hauek betetzen dituztela bermatzeko:

a) edozein elementuren edo substantziaren eduki toxikologikoa arriskutsua ez izatea;

b) 4. artikuluko d) idatz-zatiaren arabera hartutako purutasun-irizpide espezifikoek 1 mg/kg artseniko baino gehiago edo 1 mg/kg berun baino gehiago ez izatea; nolana ere, aldi baterako aurreikusitako edozein salbuespen indarrean egongo da;

c) 4. artikuluko d) idatz-zatiaren arabera hartutako purutasun-irizpide espezifikoak betetzea.

4. artikulua

Batzordeak hauek onartuko ditu:

a) I. eranskinean egin beharreko aldaketak, hauek kontuan izanda: disolbatzaileen erabilera-esparruan izandako aurrerakuntza zientifikoak eta teknikoak, disolbatzaileen erabilera-baldintzak eta hondakinetan izan ditzaketen gehieneko edukiak;

b) beharrezko analisi-metodoak, 3. artikuluan ezarritako irizpide orokorrak eta espezifikoak betetzen direla kontrolatzeko;

c) laginak hartzeko prozedura, eta I. eranskinean zerrendatutako eta produktuetan edo osagaietan erabilitako erauzketa-disolbatzaileen analisi kualitatiborako eta kuantitatiborako metodoak;

d) beharrezkoa balitz, I. eranskinean zerrendatutako erauzketa-disolbatzaileen purutasun-irizpide espezifikoak.

Lehen lerrokadan, b) eta c) idatz-zatietan jasotako neurriak, zuzentarau honetako funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak —zuzentaraua osa dezakete—, 6. artikuluko 2. paragrafoan jaso den kontrol-dun arautze-prozedura betez ezarriko dira.

Lehen lerrokadan, a) eta d) idatz-zatietan jasotako neurriak, zuzentarau honetako funtsezkoak ez diren elementuak aldatzekoak —zuzentaraua osa dezakete—, 6. artikuluko 3. paragrafoan jaso den kontrol-dun arautze-prozedura betez ezarriko dira.

Beharrezkoa denean, lehen lerrokadan, a) eta d) idatz-zatietan jasotako neurriak, 6. artikuluko 4. paragrafoan jaso den urgentziazko prozeduraren arabera ezarriko dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. artikulua

1. Informazio berrien ondorioz edo zuzentarau hau onartu ondoren informazioen balorazio berriak egitearen ondorioz, estatu kide batek arrazoi zehatzak izango balitu elikagaietan I. eranskinean jasotako substantziaren bat erabiltzeak edo substantzia horietan 3. artikuluan jasotako elementu bat edo zenbait izateak giza osasuna kalte dezakeela ezartzeko, zuzentarau honetan aurreikusitako baldintzak errespetatu arren, aipatutako estatu kideak aldi baterako eten edo muga dezake bere lurraldean xedapenak aplikatzea. Horrelakoetan, estatu kideak erabakia berehala jakinaraziko die gainerako estatu kideei eta Batzordeari, eta erabaki hori hartzeko arrazoiak adieraziko ditu.

2. Batzordeak ahal bezain laster aztertuko ditu estatu kide horrek argudiatutako arrazoiak eta 6. artikularen 1. paragrafoan jasotako Komiteari kontsultatuko dio. Berehala, irizpen bat egingo du, eta neurri egokiak hartuko ditu, artikulua honen 1. paragrafoan jasotako neurriak ordezkatuko dituztenak.

3. Komiteak beharrezkotzat jotzen badu zuzentarau honi aldaketak egitea, 1. paragrafoan aipatutako zailtasunak konpontzeko eta giza osasuna babesten dela bermatzeko, aldaketa horiek egingo ditu.

Zuzentarau honetako funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak 6. artikuluko 4. paragrafoan jaso den urgentziazko prozedura betez ezarriko dira.

Babes-neurriak hartu dituen estatu kide orok neurri horiek aplikatu ahal izango ditu, aldaketa horiek bere lurraldean indarrean sartu arte.

6. artikulua

1. Batzordeak elika-katearen eta animalia-osasunaren Komite iraunkorraren laguntza izango du. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko 178/2002/EE Erregelamenduaren 58. artikulua ezarri zuen Komite hori. Erregelamendu horrek elikagaiei buruzko legeriaren betekizun eta printzipio orokorrak ezarri, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortu eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak ezarri zituen.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 5. bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere beteko da.

3. Paragrafo hau aipatzen denean, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 5. paragrafoko b) idatz zatia eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedaturikoa betez.

1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 3. paragrafoko c) idatz-zatian eta 4. paragrafoko b) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako epeak ezarri dira, eta bi hilabetekoa, hilabete batekoa eta bi hilabetekoa izango dira, hurrenez hurren.

4. Paragrafo hau aipatzen denean, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1., 2., 4. eta 6. paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedaturikoa betez.

7. artikulua

1. Estatu kideek xedapen erabilgarri guztiak hartuko dituzte, I. eranskinean zerrendatutako substantziak eta erauzketa-disolbatzaile modura elikagaien alorrean erabiltzen direnak ez merkaturatzeko, baldin eta ez badituzte bere ontzietan edo etiketan aipu hauek idatzita erraz ikusteko, argi irakurtzeko eta kendu ezin den moduan:

a) I. eranskinean adierazitako salmenta-deitura;

b) substantziak elikagaien edo elikagaien osagaien erauzketan erabiltzeko kalitate egokia duela adierazten duen aipu garbia;

c) lotea identifikatzeko aipua;

d) fabrikatzailearen, ontziratzailearen edo Erkidegoaren barruan kokatutako saltzaile baten izena edo izen soziala;

e) kantitate gordina bolumen-unitateetan adierazita;

f) beharrezkoa denean, kontserbazio- edo erabilera-arau bereziak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Hala ere, 1. paragrafoan ezarritakoa, eta paragrafo horren c), d), e) eta f) idatz-zatietan adierazitako aipuak loteari dagozkion merkataritza-dokumentuetan soilik ager daitezke. Dokumentu horiek entregaren unean edo lehenago emango dira.

3. Artikulu honek ez die eragingo substantzien eta nahasketa arriskutsuen metrologiari edo sailkapenari buruz, edo ontziratzeari eta etiketatzeari buruz Erkidegoak hartutako xedapen zehatzagoei edo zabalagoei.

4. Estatu kideek ez dituzte zehaztuko, artikulu honetan ezarritakoa baino gehiago, aurreikusitako aipuak adierazteko modalitateak.

Hala ere, estatu kide bakoitzak debekatu egingo du bere lurraldean erabiltzaileari erauzketa-disolbatzaileak saltzea, baldin eta artikulu honetan aurreikusitako aipuak ez badira ageri erabiltzaileek erraz ulertzeko hizkuntza batean, erabiltzailearen informazioa beste neurri batzuen bitartez bermatzen denean izan ezik. Xedapen honek ez du eragotziko aipu horiek hainbat hizkuntzatan adieraztea.

8. artikulua

1. Halaber, zuzentarau hau Erkidegoan inportatutako elikagaiak edo elikagaien osagaiak fabrikatzeko erabiltzen diren erauzketa-disolbatzaileei aplikatuko zaie.

2. Zuzentarau hau ez zaie aplikatuko Erkidegotik kanpora esportatzeko erauzketa-disolbatzaileei eta elikagaiei.

9. artikulua

II. eranskinaren A zatian adierazten diren egintzen bidez aldatutako 88/344/EEE zuzentaraua indargabetuta geratuko da. Nolanahi ere, estatu kideek bete egin beharko dute zuzentarauek estatuko zuzenbidean jasotzeko epeei dagokienez dauzkaten betebeharrak (I. eranskineko B zatian adierazita daude).

Indargabetutako zuzentarauari egindako erreferentziak zuzentarau honi egindakotzat hartuko dira, eta III. eranskineko korrespondentzia-taularen arabera interpretatuko dira.

10. artikulua

Zuzentarau hau indarrean sartuko da Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeiei egunera.

11. artikulua

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaile.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Presidentea

A. VONDRA

[1] C 224 EO, 2008.08.30ekoa, 87. or

[2] Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko irailaren 23koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 23koa.

[3] L 157 EO, 1988.06.24koa, 28. or.

[4] Ikus II. eranskineko A zatia.

[5] L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or.

[6] L 31 EO, 2002.02.01ekoa, 1. or.

ANEXO I

DISOLVENTES DE EXTRACCIÓN CUYA UTILIZACIÓN ESTÁ AUTORIZADA PARA EL TRATAMIENTO DE MATERIAS PRIMAS, DE PRODUCTOS ALIMENTICIOS O DE COMPONENTES DE PRODUCTOS ALIMENTICIOS O DE SUS INGREDIENTES

PARTE I

Disolventes de extracción que deberán utilizarse respetando las buenas prácticas de fabricación para todos los usos ⁽¹⁾

Nombre:

Propano

Butano

Acetato de etilo

Etanol

Anhídrido carbónico

Acetona ⁽²⁾

Protóxido de nitrógeno

⁽¹⁾ Se considera que un disolvente de extracción se utiliza respetando las buenas prácticas de fabricación si su empleo solo produce la aparición de residuos o de derivados y en cantidades técnicamente inevitables y que no suponen riesgos para la salud humana.

⁽²⁾ Se prohíbe la utilización de acetona en el refino de aceite de orujo de oliva.

PARTE II

Disolventes de extracción cuyas condiciones de utilización se especifican

Nombre	Condiciones de utilización (Descripción sucinta de la extracción)	Residuos máximos en los productos alimenticios o en los ingredientes extraídos
Hexano ⁽¹⁾	Producción o fraccionamiento de grasas y de aceites y producción de manteca de cacao	1 mg/kg en la grasa, en el aceite o en la manteca de cacao
	Preparación de productos a base de proteínas desgrasadas y harinas desgrasadas	10 mg/kg en los productos alimenticios que contengan el producto a base de proteínas desgrasadas y en las harinas desgrasadas
		30 mg/kg en los productos desgrasados de soja tal como se venden al consumidor final
	Preparación de semillas de cereales desgrasados	5 mg/kg en las semillas de cereales desgrasados
Acetato de metilo	Descafeinado o supresión de los elementos irritantes y amargos del café y del té	20 mg/kg en el café o en el té
	Producción de azúcar a partir de melazas	1 mg/kg en el azúcar
Metiletilcetona ⁽²⁾	Fraccionamiento de grasas y aceites	5 mg/kg en la grasa o en el aceite
	Descafeinado o supresión de los elementos irritantes y amargos del café y del té	20 mg/kg en el café o en el té
Diclorometano	Descafeinado o supresión de los elementos irritantes y amargos del café y del té	2 mg/kg en el café torrefacto y 5 mg/kg en el té
Metanol	Todos los usos	10 mg/kg
Propanol-2	Todos los usos	10 mg/kg

⁽¹⁾ Hexano: producto comercial compuesto esencialmente de hidrocarburos acíclicos saturados que contiene 6 átomos de carbono y se destila entre 64 °C y 70 °C. Se prohíbe el empleo conjunto del hexano y de la metiletilcetona.

⁽²⁾ El nivel de n-hexano en este disolvente no deberá exceder 50 mg/kg. Se prohíbe el empleo conjunto del hexano y de la metiletilcetona.

PARTE III

Disolventes de extracción cuyas condiciones de utilización se especifican

Nombre	Contenido máximo de residuos en los productos alimenticios debidos a la utilización de disolventes de extracción en la preparación de aromas a partir de plantas aromáticas naturales
Éter dietílico	2 mg/kg
Hexano ⁽¹⁾	1 mg/kg
Ciclohexano	1 mg/kg
Acetato de metilo	1 mg/kg
Butanol-1	1 mg/kg
Butanol-2	1 mg/kg
Metiletilcetona ⁽¹⁾	1 mg/kg
Diclorometano	0,02 mg/kg
Propano-1	1 mg/kg
1,1,1,2-tetrafluoroetano	0,02 mg/kg

⁽¹⁾ Se prohíbe el empleo conjunto del hexano y de la metiletilcetona.

ANEXO II

PARTE A

**Directiva derogada con la lista de sus modificaciones sucesivas
(contempladas en el artículo 9)**

Directiva 88/344/CEE del Consejo
(DO L 157 de 24.6.1988, p. 28)

Directiva 92/115/CEE del Consejo
(DO L 409 de 31.12.1992, p. 31)

Directiva 94/52/CE del Parlamento Europeo y del Consejo
(DO L 331 de 21.12.1994, p. 10)

Directiva 97/60/CE del Parlamento Europeo y del Consejo
(DO L 331 de 3.12.1997, p. 7)

Reglamento (CE) n° 1882/2003 del Parlamento Europeo y del Consejo Únicamente el punto 9 del anexo III
(DO L 284 de 31.10.2003, p. 1)

PARTE B

**Plazos de transposición al Derecho nacional
(contemplados en el artículo 9)**

Directiva	Fecha límite de transposición
88/344/CEE	13 de junio de 1991
92/115/CEE	a) 1 de julio de 1993 b) 1 de enero de 1994 ⁽¹⁾
94/52/CE	7 de diciembre de 1995
97/60/CE	a) 27 de octubre de 1998 b) 27 de abril de 1999 ⁽²⁾

⁽¹⁾ De acuerdo con lo establecido en el artículo 2, apartado 1, de la Directiva 92/115/CEE:
«Los Estados miembros modificarán sus disposiciones legales, reglamentarias y administrativas a fin de:
— permitir la comercialización de productos que cumplan la presente Directiva el 1 de julio de 1993 a más tardar,
— prohibir la comercialización de productos que no cumplan lo dispuesto en la presente Directiva con validez a partir del 1 de enero de 1994.»

⁽²⁾ De acuerdo con lo establecido en el artículo 2, apartado 1, de la Directiva 97/60/CE:
«Los Estados miembros modificarán sus disposiciones legales, reglamentarias y administrativas a fin de:
— autorizar la comercialización de los productos que sean conformes a la Directiva 88/344/CEE, tal como ha sido modificada por la presente Directiva, a más tardar el 27 de octubre de 1998,
— prohibir la comercialización de los productos que no sean conformes a la Directiva 88/344/CEE, tal como ha sido modificada por la presente Directiva, a partir del 27 de abril de 1999. No obstante, los productos puestos en el mercado o etiquetados antes de esa fecha y que no sean conformes a la Directiva 88/344/CEE, tal como ha sido modificada por la presente Directiva, podrán comercializarse hasta el agotamiento de las existencias.»

ANEXO III

Tabla de correspondencias

Directiva 88/344/CEE	Presente Directiva
Artículo 1, apartado 1	Artículo 1, apartado 1
Artículo 1, apartado 3	Artículo 1, apartado 2
Artículo 2, apartado 1	Artículo 2, apartado 1
Artículo 2, apartado 2	Artículo 2, apartado 2
Artículo 2, apartado 3	—
Artículo 2, apartado 4	Artículo 2, apartado 3
Artículo 3	Artículo 3
Artículo 4	Artículo 4
Artículo 5	Artículo 5
Artículo 6, apartado 1	Artículo 6, apartado 1
Artículo 6, apartado 2	—
Artículo 6, apartado 3	—
—	Artículo 6, apartado 2
—	Artículo 6, apartado 3
—	Artículo 6, apartado 4
Artículo 7	Artículo 7
Artículo 8	Artículo 8
Artículo 9	—
—	Artículo 9
—	Artículo 10
Artículo 10	Artículo 11
Anexo	Anexo I
—	Anexo II
—	Anexo III